



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026KO MAIATZAREN 25EKOA, GOBERNUAREN BIGARREN LEHENDAKARIORDEAREN ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, 2026KO MAIATZAREN 26AN DEITUTAKO GREBAN ZEHAR ARABAKO ESKU-HARTZE SOZIALAREN SEKTOREAN GIZARTEARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUTSIKO ZAIOLA BERMATZEN DUENA.

ELA, LAB, CCOO ETA ESK sindikatuek greba deitu dute Arabako esku-hartze sozialaren sektorean. Greba 2026ko maiatzaren 26an egingo da, lanaldi osoan; 00:00etatik 24:00etara.

Greba deialdiaren helburuak Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota daude, administrazio espedientean.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Argi dago oinarrizko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasuna proportzionaltasun-printzipioak zehaztu behar duela, eta printzipio hori gainditu egiten dela neurriak Konstituzio Auzitegiak ezarritako hiru betekizun edo baldintza betetzen ez baditu (122/1990 KAE, 123/1990 KAE, 8/1992 KAE eta 123/2003 KAE):

1. Egokitasun-judizioa. Haren aplikazioak proposatutako helburua lor dezake.
2. Premia-judizioa. Egoera ikusita, ez dagoela neurri egokiagorik eraginkortasun bereko helburu hori lortzeko.
3. Proportzionaltasun-judizioa. Emandako neurria edo konponbidea haztatua edo orekatua izatea, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eratortzen direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balore batzuei kalteak baino.

Gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak muga bat dakar greba-eskubidea egikaritzeko; hori dela eta, beharrezkoa eta ezinbestekoa da jokoan dauden interesen artean haztapen bat ezartzea. Hala, grebalarien eskubidea

mugatu egin beharko da – amore eman beharko du, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan –, baldin eta grebaren bidez beren interesak defendatzeak kalte larriagoa eragiten badio edo eragin badiezaioke funtsezko zerbitzua emateko eskubidearen hartzaileari edo titularrari, beren aldarrikapenen edo asmoen arrakastarik ezak baino. Horretarako, hizpide dugun greba-deialdiaren ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Funtzio-eremuari dagokionez, grebak Arabako Lurralde Historikoan dauden esku-hartze sozialeko baliabideetan ematen diren zerbitzuen erabiltzaileei eragiten die. Kasu guztietan, hartzaileak pertsona kalteberak dira, eta gizarte-arretako premiak dituzte.

Denbora-eremuari dagokionez, egun bakarreko greba da, 2026ko maiatzaren 26an, lanaldi osoan, 00:00etatik 24:00etara.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 5.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko artikulatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztea du helburu, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioak garatuz, funtsean pertsonalak eta harremanetakoak diren prestazio eta zerbitzuen bitartez.

Era berean, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2028 Legearen 6.1 artikulua honako funtsezko helburu hauek ezartzen ditu: autonomia pertsonala sustatzea eta mendetasunetik eratorritako premia pertsonal eta familiarrak, babesgabetasun-egoerek eta bazterketa-egoerek sortutakoak, larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonal eta familiarrak ekidin eta artatzea, bai eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea ere.

Bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko eskubide konstituzionalak, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotakoak, botere publikoei dagokie horiek bermatzea, prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eta ezin dira geratu behar bezalako babesik gabe grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean. 10.1 artikulua ezartzen du pertsonaren duintasuna ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria dela. Era berean, Konstituzioaren 49. artikulua botere publikoei agintzen die aurreikusteko, tratatzeko, errehabilitatzeko eta integratzeko politika bat egitea urritu fisiko, sentsozial eta psikikoei, eta behar duten arreta espezializatua emango diete, eta bereziki babestuko dituzte titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak baliatzeko.

Osasunaren babesa, berriz, herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubidea da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948), 25.1 artikuluan, honako hau dio: «pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako eskubidea». Ildo beretik doaz Europako Kontseiluaren Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE 1966).

Aurrekoaren ondorioz, Arabako esku-hartze sozialeko sektoreko langileei lanaldi osoko egun bateko grebarako deialdia egin zaiela iragarri denez, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu behar ditu funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola ziurtatzeko, eta bateragarri egin behar ditu erkidegoaren interes orokorra – «funtsezkotzat» jotako zerbitzuak legez aintzat hartzean inplizitua – eta deitutako langileek grebarako duten eskubidea, funtsezko edukia baita ere. Horretarako, honako inguruabar hauek hartu behar dira kontuan.

Esku-hartze sozialaren sektorearen esparruan, zerbitzuak ematen zaizkie mendetasun- edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsoneri, hainbat baliabideren bidez, hala nola ostatu-zerbitzuak, eguneko zerbitzuak, adingabeentzako eta/edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak, etab.

Arabako esku-hartze sozialeko sektorean ematen diren zerbitzuak aztertu ondoren, ukalezina da eskainitako hainbat baliabidetan (etxebizitza komunitarioak, aterpetxeak, eguneko zentroak, egoitzak, etab.) egiten den jarduerak garrantzi sozial argia duela. Zerbitzu horien hartzaileek jasotzen duten pertsonak nekez balia daitekeen kolektiboa osatzen dute, beren egoera subjektiboa eta pertsonala kontuan hartuta. Beraz, sektore honetan gutxieneko zerbitzurik finkatu gabe greba egiteak, grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte nabarmen handiagoak eragin ditzake.

Zentzu honetan, lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua bigarren paragrafoak «gobernu-agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak emango direla ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko eskumena, hala badagokio; erreferentzia hori, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horri buruz egindako interpretazioaren arabera (besteak beste, 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa, 26/1981 Epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 Epaia, apirilaren 24koa), Gobernuari edo gobernu-ahalak baliatzen dituzten organoei dagokie.

Arau horrek – konstituzionaltasuna aitortua du (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11]) –, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaekin bat etorritik, non ezartzen baita «eskubide horren erabilera arautzen duen Legeak beharrezko bermeak ezarriko dituela erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko» – gobernu-agintaritzari aukera ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko, greba-kasuetan funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko. Neurri horietako bat da jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea administrazio-ebazpen bidez, eta, ondorioz, langile kopuru jakin bati zerbitzu horiek egiteko deia egitea, langile horien lan-prestazioa behar baita.

Hala ere, eskumen hori baliatzeak ezin du greba-eskubidea de facto ezabatu, ezta edukiz hustu ere, bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuak betetzeak normaltasun-itxura eman dezan ahalbidetzen baitu, eta hori haren ezarpenak izan behar duen izaera murriztailea oinarri hartuta. Beraz, eta jada ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraituz, beharrezkoa da horiek mugatzeko zehaztapenean babestu beharreko beste oinarrizko eskubideekiko proportzionaltasun egokia gordetzea, bai eta murrizketa horiek behar bezala justifikatzea ere.

2026ko otsailaren 2an, alderdi interesdunek Arabako esku-hartze sozialaren sektorean 2026ko otsailaren 4rako eta 5rako deitutako grebarako gutxieneko zerbitzuei buruzko akordioaren akta sinatu zuten. Akta horretan honako hau jaso zen:

“Gai orokorrak:

- *Garatu beharreko funtzioei dagokienez, ulertzen da ez direla funtsezkoak: koordinazio-bilerak, talde-bilerak, ikuskapen-bilerak, bideratzeak, txostenak egitea, erakundeetako teknikariekin komunikatzea premia larrikoak ez diren gaietarako, eta jaiegun batean egiten ez diren gainerako funtzioak. Garatu beharreko zereginak "zuzeneko arreta" gisa konfiguratutakoak baino ez dira izango, baita premiazko lan atzeraezinak ere.*
- *Dekretu bidez ezarritako ratioa duten baliabideetan, ratio hori bete egin behar dela ulertzen da, baldin eta baliabideetan erabiltzaileak badaude. Langileak lanegun batean zenbatuko dira.*

- Jaiegunetako edo asteburuetako zerbitzua aipatzen dugunean, egiten den jarduerari dagokionez egiten dugu.
- % 50 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu.
- Ahal dela, grebarako eskubidea baliatzen ez duten langileek emango dituzte gutxieneko zerbitzuak. Izendapen nominala eta eginkizunen esleipena txandaka egingo dira.

Arabako Foru Aldundiko zerbitzuetarako:

- Egoitza-zerbitzuetan, arreta zuzeneko ohiko langileen % 50.
- Eguneko arretako garraio egokitua bermatuko da hala ezarrita duten landa-eremuetan.
- «Etxean bai (Gurutze Gorria)» telelaguntza-zerbitzua bermatuko da, arreta publikoko eta larrialdiko teknikari batekin.
- Tximeleta. Krisi emozionaleko larrialdiei telefono bidez erantzungo zaie, eta, behar izanez gero, aurrez aurre joango dira. Zerbitzua asteburu bateko langileekin emango da.
- Osasun mentaleko arretarako etxebizitzak (Eraiki bide fundazioa): pertsona 1, integratzaile edo hezitzaile kategoriarekin, pisu bakoitzeko txanda bakoitzeko, eta garbitzaile 1 gaueko txandan, pisu bakoitzean.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Zerbitzuetarako:

- Adinekoei eguneko arreta emateko zentroetan, asteburuko zerbitzuaren baliokidea.
- Adinekoentzako apartamentu babestuetan, zuzeneko arretako langileen % 50, eta Lar apartamentuetan, zerbitzuko langileen % 50. Pertsona bakarra badago, gutxienekoetara deituko zaio.
- Estrada eguneko zentroari dagokionez (gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arreta emateko zentroa), funtsezko zerbitzu gisa bi langile ezartzen dira irekitzeko ordutegian.
- SMUS. Zerbitzua bi figura profesionalen bidez emango da, 8: 00etatik 22:00etara, eta zaintza lokalizatuko figura bat, 22:00etatik 8: 00etara.
- Jantoki sozialean, integratzaile batek eta bi zerbitzarik emango dute zerbitzua.
- BIZAN. Pertsona 1 (janaria jasotzea, zerbitzua prestatzea eta jasotzea) jantoki-zerbitzuaren ohiko ordutegian, eta informazioko laguntzaile bat, 13:30etik 14:30era, jantoki-zerbitzua ireki eta ixteko.
- BIDATU. Txanda bakoitzean 4 orduko presentzia eta telefono bidezko prestasuna duen pertsona bat.

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuetarako:

- Justizia Zuzendaritza. Hauek dira gutxieneko zerbitzuak:

o Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren mendeko adingabe arau-hausleak barneratzeko ikastetxeetan, asteburuko zerbitzuaren baliokidea ezartzen da.

o Deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak, familiei laguntzea jaiegun bateko langileekin

- *Adikzioak dituzten pertsonei arreta emateko zentroa:*

o Terapeuten eta hezitzaileen taldeko pertsona bat guztira adikzioen egoitza-tratamenduko zentroan txanda bakoitzean, eta pertsona bat eguneko zentroko hezitzaileen taldean.

Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren mendeko zerbitzuetarako:

- *Nazioarteko babesa eskatzen dutenentzako aldi baterako harrera-zentroa (Langraiz): txanda bakoitzeko langile bat izango da gutxieneko zerbitzua.*

Hitzarmen honetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak Arabako esku-hartze sozialaren sektorean egingo diren greba-deialdietan aplikatuko dira. Alderdiek akordio honetan sartu nahi dituzten aldaketak deialdi espezifikoan alegazio-izapidean helaraziko dira»”.

Sinatutako akordioaren azken paragrafoan jasotako aurreikuspena betez, 2026ko martxoaren 18rako greba deialdia zela eta, alderdiek alegazioak egin zituzten 2026ko otsailaren 2an hartutako erabakiari buruz, eta Gasteizko Udalak kudeatzen dituen SMUS eta BIZAN gizarte baliabideetan eta Arabako Foru Aldundiaren mendeko TXIMILETA errekurtsioan jarri zituzten arreta.

Orduan alderdiek aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, 2026ko martxoaren 17an gutxieneko zerbitzuei buruzko Agindua eman zen. Agindu horretan, alde batetik, 2026ko otsailaren 2an adostutakoak mantendu ziren, SMUS eta BIZAN zerbitzuetarako adierazitakoak barne; eta, bestetik, Sexu Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Zentroari (TXIMELETAK) buruzko gutxieneko zerbitzuak aldatu ziren; izan ere, errekurtsioaren beraren ezaugarriak kontuan hartuta eta inguruabarrak aztertu ondoren, erabaki zen estaldura telefono bidez soilik egitea ez zela nahikoa Tximeletak enpresak eskaintzen duen zerbitzuaren funtsezko helburua bermatzeko, eta, horregatik, ezarri zen larrialdiko eta krisi emozionalako egoerei arreta ematea bermatu behar zela, lantokian gutxienez profesional bat egon behar baitzen lan txanda bakoitzeko.

Deialdi honetan, Vitoria-Gasteizko Udalak alegazioak aurkeztu ditu, baina ez da behar besteko justifikaziorik eman 2026ko martxoaren 17ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzuak aldatzeko.

Kontuan hartuta deialdi hau berdina dela funtzio-eremuari eta denbora-eremuari dagokienez, 2026ko martxoaren 18rako deitutako grebaren harira emandako 2026ko martxoaren 17ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzu berak mantentzen dira. Zentzu berean eman zen 2026ko apirilaren 21eko Agindua, Arabako esku-hartze sozialaren sektorean 2026ko apirilaren 22an deitutako grebarako.

Hala ere, orduan ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez dira premisa juridiko lotesle bat deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko —doktrina konstituzionalak debekatzen duen inferentzia—, baina aukera ematen dute egiaztatzeko zer ondorio positibo edo negatibo izan dituzten agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasun konstituzionalak babesgarrietan (grebetakoa barne), deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesetarako.

Gai horri buruzko eskumen eskusiboa Gobernu Agintaritzari esleitzearen helburua da greba-eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak, funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, oinarritzko beste eskubide batzuk asetzerara bideratuta dauden heinean, Zuzenbidearen arabera bakarrik ezarri ahal izatea, eta gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak bakarrik.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko323/2024 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez lan-arloko legeria betearaztearen arloan bere gain hartutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalean jasotzen du eskumen hau: zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak emateko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeei eragiten dieten greba-eskubidea erabiliz gero, komunitatearen funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko bermeak ezartzeko eskumena erabiltzea. Eskumen hori ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetzen du.

Horregatik guztiagatik, Gobernu bigarren Lehendakariordeak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Arabako esku-hartze sozialeko sektoreko langileek 2026ko maiatzaren 26an, 00:00etatik 24:00etara, deitutako greba-eskubidea baliatzeko, honako gutxieneko zerbitzu hauek mantendu beharko dira:

1. Gai orokorrak:

- 1.1 Garatu beharreko funtzioei dagokienez, ulertzen da ez direla funtsezkoak: koordinazio-bilerak, talde-bilerak, ikuskapen-bilerak, bideratzeak, txostenak egitea, erakundeetako teknikariekin komunikatzea premia larrikoak ez diren gaietarako, eta jaiegun batean egiten ez diren gainerako funtzioak. Garatu beharreko zereginak "zuzeneko arreta" gisa konfiguratutakoak baino ez dira izango, baita premiazko lan atzeraezinak ere.
- 1.2 Dekretu bidez ezarritako ratioa duten baliabideetan, ratio hori bete egin behar dela ulertzen da, baldin eta baliabideetan erabiltzaileak badaude. Langileak lanegun batean zenbatuko dira.
- 1.3 Jaiegunetako edo asteburuetako zerbitzua aipatzen dugunean, egiten den jarduerari dagokionez egiten dugu.
- 1.4 % 50 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu.
- 1.5 Ahal dela, grebarako eskubidea baliatzen ez duten langileek emango dituzte gutxieneko zerbitzuak. Izendapen nominala eta eginkizunen esleipena txandaka egingo dira.

2. Arabako Foru Aldundiko zerbitzuetarako:

- 2.1 Egoitza-zerbitzuetan, arreta zuzeneko ohiko langileen % 50.
- 2.2 Eguneko arretako garraio egokitua bermatuko da hala ezarrita duten landa-eremuetan.
- 2.3 «Etxean bai (Gurutze Gorria)» telelaguntza-zerbitzua bermatuko da, arreta publikoko eta larrialdiko teknikari batekin.

- 2.4 Tximeleta. Larrialdiko eta krisi emozionaleko egoerei erantzuteko, lantokian gutxienez profesional bat egongo da lan-txanda bakoitzeko.
- 2.5 Osasun mentaleko arretarako etxebizitzak (Eraiki bide fundazioa): pertsona 1, integratzaile edo hezitzaile kategoriarekin, pisu bakoitzeko txanda bakoitzeko, eta garbitzaile 1 gaueko txandan, pisu bakoitzean.

3. Vitoria-Gasteizko Udaleko Zerbitzuerako:

- 3.1 Adinekoei eguneko arreta emateko zentroetan, asteburuko zerbitzuaren baliokidea.
- 3.2 Adinekoentzako apartamentu babestuetan, zuzeneko arretako langileen % 50, eta Lar apartamentuetan, zerbitzuko langileen % 50. Pertsona bakarra badago, gutxienekoetara deituko zaio.
- 3.3 Estrada eguneko zentroari dagokionez (gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arreta emateko zentroa), funtsezko zerbitzu gisa bi langile ezartzen dira irekitzeko ordutegian.
- 3.4 SMUS. Zerbitzua bi figura profesionalen bidez emango da, 8: 00etatik 22:00etara, eta zaintza lokalizatuko figura bat, 22:00etatik 8: 00etara.
- 3.5 Jantoki sozialean, integratzaile batek eta bi zerbitzarik emango dute zerbitzua.
- 3.6 BIZAN. Pertsona 1 (janaria jasotzea, zerbitzua prestatzea eta jasotzea) jantoki-zerbitzuaren ohiko ordutegian, eta informazioko laguntzaile bat, 13:30etik 14:30era, jantoki-zerbitzua ireki eta ixteko.
- 3.7 BIDATU. Txanda bakoitzean 4 orduko presentzia eta telefono bidezko prestasuna duen pertsona bat.

4. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuetarako:

- 4.1 Justizia Zuzendaritza. Hauek dira gutxieneko zerbitzuak:

- o Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren mendeko adingabe arau-hausleak barneratzeko ikastetxeetan, asteburuko zerbitzuaren baliokidea ezartzen da.
- o Deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak, familiei laguntzea jaiegun bateko langileekin

- 4.2 Adikzioak dituzten pertsonen arreta emateko zentroa: terapeuten eta hezitzaileen taldeko pertsona bat guztira adikzioen egoitza-tratamenduko zentroan txanda bakoitzean, eta pertsona bat eguneko zentroko hezitzaileen taldean.

5. Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren mendeko zerbitzuetarako:

Nazioarteko babesaren eskatzen dutenentzako aldi baterako harrera-zentroa (Langraiz): txanda bakoitzeko langile bat izango da gutxieneko zerbitzua.

Bigarrena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbaterako ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena. - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke organo honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

MIGUEL TORRES LORENZO
BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA